


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,1 jaitsi dira 2024ko abenduan

Urte artean, 2023ko abendutik 2024ko abendura, prezioak % 0,8 igo dira

2024ko abenduan, Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea % 0,1 jaitsi zen, 2024ko azaroaren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. 2023ko abenduaren aldean, kostuak % 0,8 igo dira.

Eraikuntzako kostuak % 0,1 jaitsi dira eta Obra zibilekoak % 0,2. 2023ko abenduaren aldean, prezioak % 0,9 igo dira eraikuntzan eta obra zibilean, % 0,5.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasak sektoreka



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilaren (2024ko azaroa) aldean, **lehengaien** kostuak % 0,2 jaitsi dira, eta **eskulanarenak**, berriz, ez dira aldatu. Urte arteko datuei dagokienez, lehengaien kostua % 0,8 murriztu da, eta eskulanarena, berriz, % 5,4 igo da.

Lehengaien kostuak % 0,2 jaitsi dira hil artean Eraikingintzan eta Obra zibilean. Urte arteko bilakaeran, Eraikingintzako lehengaien kostuak % 0,7 murriztu dira eta Obra zibilekoak % 1,0.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Abendua 2024

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	117,7	-0,1	0,8
Eraikinak	117,4	-0,1	0,9
Obra zibila	118,9	-0,2	0,5
Lehengaiak	118,2	-0,2	-0,8
Eraikinak	117,8	-0,2	-0,7
Obra zibila	119,8	-0,2	-1,0
Laneskua	116,4	0,0	5,4

Oinarria 2021=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Urtarrilaren 27a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Eraikuntzaren sektoreak kontsumitutako lehengai nagusien prezioak, 2024ko abenduan 2023ko abenduaren aldean jaitsierarik handienak izan dituztenak, honako azpisektore hauetan kokatzen dira: *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 6,1) eta *Produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioa* (% 2,5). Bestalde, *Metalezko produktuen fabrikazioa, makineria eta ekipoa izan ezik* azpisektoreko lehengaien kostua % 0,8 igo da.

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p). Abendua 2024

	m / m-12
Ateratze-industriak	-0,5
Kokeak eta petrolioaren fintzen	-6,1
Metallikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa	-2,5
Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipoa salbu	0,8
Material eta ekipa elektrikoaren fabrikazioa	-0,2

Oinarria 2021=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2025eko Urtarrilaren 27a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62